

PRENTSA OHARRA: 2024.03.12

Etxepare Euskal Institutuak munduko 28 hiritan sustatu ditu Korrikaren aldeko ekintzak

- Institutuak nazioartean sustatzen dituen euskara eta euskal kultura irakurletzek eta euskal etxeek egitarau bereziak antolatu dituzte AEK-ren ekimenarekin bat egiteko

- **23. Korrika** martxoaren 14tik 24ra egingo da, Irundik Baionara.

‘Harro Herri’ lelopean, nazioartera zabalduko da, beste behin, [Korrika](#). Ohi bezala, Etxepare Euskal Institutuak bat egingo du AEK-ren ekimenarekin, Euskal Herritik kanpo euskarari babesa eta zabalkundea emateko. Horrela, mundu osoko euskal etxeetako kideek eta unibertsitatetako euskara eta euskal kultura irakurletzen irakasleek askotariko jarduerak antolatu dituzte egunotarako. Guztira, Institutuak sustatutako 30 ekimen egingo dira munduko 28 hiritan, Korrikaren nazioarteko testuinguruan.

Martxoaren 14tik 24ra egingo da 23. Korrika. 11 egunetan, 2.500 kilometro inguru burutuko dituzte Euskal Herri osoan barrena, Irun abiapuntu eta Baiona helmuga hartuta.

Etxepare Euskal Institutuaren lankidetzarekin, **munduko 28 hiritan** egingo da euskararen aldeko lasterketa erraldoiarekin lotura duen ekimenen bat. **European**, 16 hiritan (Alemanian, Erresuma Batuan, Italian, Polonian...); **Hego eta Ipar Amerikan**, 11 hiritan (Argentina, Uruguai, Kanada, AEB...); **Asian**, Tokion eta **Ozeanian** Sidney-n antolatu dituzte ekintzak bertako euskal etxe eta unibertsitatetako irakurletzek.

Alde batetik, euskara eta euskal kultura irakurletzek antolatu dituzte ekintza hauek. Etxepare Euskal Institutuak mundu osoko unibertsitateekin lankidetzan hitzarmenak sinatzen ditu euskal ikasketak eskaini ditzaten. Euskara eta euskal kulturarekin loturiko ikasgaiak ematen dituzte Institutuak sustatutako [irakurletzek](#) munduko hainbat unibertsitatetan. Programa ezberdinen bidez irakurleen prestakuntza eta ikasleen euskara gaitasuna sustatzen du Institutuak.

Bestetik, munduan zehar daude hainbat euskal etxek ere antolatu dituzte ekintzak. Institutuak harreman estua du munduko hainbat euskal etxeekin, haietan euskara irakatsi dadin sustatzen baitu, bai [Euskara Munduan](#) programaren bidez, baita material didaktikoa bidaliz ere.

Munduko hiri askotan, bertako irakurletzetako ikasle eta irakasleek eta euskal etxeko kidek elkarlanean antolatu dituzte Korrikaren aldeko ekintzak, nazioarteko euskal komunitatearen batasunaren adierazle.

Azken edizioetan bezala, Etxepare Euskal Institutuak Korrikarekin bat egingo du aurten ere, euskararen aldeko mezua munduan zehar zabaltzeko. Nazioartean Korrikak sustatzeaz gain, [bideo lehiaketa](#) bat antolatu du euskal etxeetako eta irakurletza sareko ikasleen artean AEK-rekin lankidetzan, eta 'Etxepare' gunea babestuko du Baionako Xaho kaian, martxoaren 24an, egitasmoaren azken egunean.

Hauek dira munduan zehar Korrikaren alde egingo diren ekintzak:

EUROPA

PARIS (FRANTZIA) – MARTXOAK 3

Antolatzaileak: Pariseko euskal etxea eta Sustraiak elkarte

Korrika Txikia egin zuten hirian zehar.

BRUSELA (BELGIKA) – MARTXOAK 9

Antolatzaileak: Bruselako euskal etxea.

Bruselako euskal komunitateak Korrika Txikia egin zuen hirian zehar.

BORDELE (FRANTZIA) – MARTXOAK 14 ETA 24

Antolatzaileak: Bordeleko euskal etxea.

- Martxoak 14: Euskal Etxeko Topa jatetxean korrika "ufatua" joko antolatu dute.
- Martxoak 24: Korrika Baionan (2776. kilometroa).

BOLONIA (ITALIA) - MARTXOAK 15

Antolatzaileak: Università di Bolognako irakurletza.

Korrika Txikia egingo dute Bolognako parte zaharrean irakurletzako ikasleek eta Boloniako euskaldunek .

BERLIN (ALEMANIA) – MARTXOAK 16

Antolatzaileak: Gernika Deutsch-Baskischer Kulturverein euskal etxea eta Freie Universität Berlineko irakurletza.

Korrika Txikia Berlingo Kreuzberg auzoan, festa eta haurrentzako ekintzak izango dira. Bertan elkartuko dira Berlingo euskaldunak, euskara ikasleak, hizkuntzarekin lotura duen bestelako jendea eta beste hizkuntza gutxituetako hiztunak (katalana, galegoa, kurdua).

BRNO (TXEKIAR ERREPUBLIKA) – MARTXOAK 16

Antolatzaileak: Masarykova Unibertsitateko irakurletza

Korrika Txikia Brnoko parte zaharrea eta euskararen aldeko festa egingo dute irakurletzako ikasleek eta ikasle ohiek.

MADRIL – MARTXOAK 16

Antolatzaileak: Madrilgo Euskal Etxea, Madrilgo Konplutentse unibertsitateko irakurletza eta Madrilgo Hizkuntza Eskola Ofizialeko Euskara Saila.

Goiz osoko egitaraua antolatu dute 'Korrika txulapoa' izenburupean: Korrika Txikia, Korrikako mezuaren irakurketa eta Korrika- poteoa.

PRAGA (TXEKIAR ERREPUBLIKA) – MARTXOAK 17

Antolatzaileak: Karlova Unibertsitateko irakurletza

Pragako alde zaharrea ibilbide labur bat egingo da, musikarekin lagunduta eta ondoren, mokadu bat izango dute irakurletzako ikasleek eta ikasle ohiek.

VALLADOLID – MARTXOAK 17

Antolatzaileak: Gure Txoko euskal etxea

Zortzi kilometroko Korrika eta hamaiketako egingo dute euskara ikasleek eta txokoko bazkideek.

MALLORCA – MARTXOAK 17

Antolatzaileak: Artea- Mallorca Euskal Etxea

Herri bazkaria eta Korrika Txikia.

POZNAN (POLONIA) – MARTXOAK 17

Antolatzaileak: Uniwersytet im. Adama Mickiewicza Unibertsitateko irakurletza

Poznango unibertsitateko campusetik Poznan erdiguneko plazaraino Korrika Txikia egingo dute irakurletzako ikasleek eta ikasle ohiek.

VARSOVIA (POLONIA) – MARTXOAK 18

Antolatzaileak: Uniwersytet Warszawski Unibertsitateko irakurletza

Varsoviako alde zaharra zeharkatuko dute Korrika Txikian eta bukaeran ikasleek euskal kantak abestuko dituzte.

VALENTZIA – MARTXOAK 23

Antolatzaileak: Valentziako euskal etxea.

Pintxo-potea, herri kirolak, Korrika Txikia, herri bazkaria eta kontzertuak antolatu dituzte. Bertan, euskal etxeko bazkideak eta euskal komunitateko kideak elkartuko dira.

EDINBURGO (ESKOZIA) – MARTXOAK 23

Antolatzaileak: The University of Edinburgheko irakurletza

Egun osoko ekitaldia antolatu dute. Goizean hiriko Royal Mile kalean elkartu, hizkuntza gutxituen ordezkariak ezagutu eta ordubetez hirian zehar lasterka egingo dute. Ordezkariz ordezkari pasako da lekukoa. Helmugara iristean, mezua irakurriko da, aurrekua dantzatuko da eta herri kirolak egingo dira ere. Gero, kalejira eta herri bazkaria egingo dute eta bazkalondoko kanteekin eta “euskal ceilidh”-rekin (dantzarekin) bukatuko dute eguna.

LONDRES (ERRESUMA BATUA) – MARTXOAK 23

Antolatzaileak: London Basque Society Euskal Elkartea

Korrika Txikia eta herri bazkaria egingo dute elkarteko kideek.

AMERIKA

HABANA (KUBA) – MARTXOAK 14 eta 16

Antolatzaileak: Habanako Unibertsitateko irakurletza.

- Martxoak 14: Korrikaren aurkezpen hitzaldia Habanako Unibertsitatean.
- Martxoak 16: Korrika Txikia egingo dute Habanako irakurletzako ikasleek eta ikasle ohiek eta Habanako euskal herritarren sareko kideek. Piraguan hasita, Malekoian barrena, La Casa de La Bombilla Verde guneraino egingo dute ibilbidea.

MONTEVIDEO (URUGUAI) – MARTXOAK 16

Antolatzaileak: Montevideoko Unibertsitateko irakurletza eta Haize Hegoa euskal etxea.

Korrika Txikia eta pintxo-potea egingo dute irakurletzako kideek eta euskal etxeko kideek.

MONTREAL (KANADA) – MARTXOAK16

Antolatzaileak: Euskaldunak Quebec euskal etxea.

Euskal etxeko kideek eta bertako euskara ikasleek Korrika Txikia egingo dute Montrealeko hiri-barnean, 10km-ko ibilbide batean. Ondoren, euskara klaseko ikasleek Korrikako mezuaren irakurketa egingo dute eta poteo alaia egingo dute zuzeneko musikarekin.

MEDELLIN (KOLONBIA) – MARTXOAK16

Antolatzaileak: Centro Vasco Gure Mendiakoak euskal etxea.

Korrika Txikia Medellin hiriko haurrekin.

LA PLATA (ARGENTINA) – MARTXOAK16

Antolatzaileak: Centro Vasco Euzko Etxea La Plata euskal etxea.

Korrika Txikia egingo dute Plaza Malvinaestik Plaza Morenoraino. Gernikako Arbolan hitz batzuk eskainiko dizkiote euskarari eta Korrikari euskal etxeko euskara irakasleek, ikasleek eta La Platako euskaldunek.

BUENOS AIRES (ARGENTINA) – MARTXOAK16

Antolatzaileak: Euskaltzaleak euskal etxea.

San Telmo auzoan Korrika Txikia eta triki-poteoa.

LIMA (PERU) – MARTXOAK16

Antolatzaileak: Limako Arantzazu Euzko Etxea.

Korrika Txikia hirian zehar.

MEXIKO HIRIA (MEXIKO) – MARTXOAK17

Antolatzaileak: Mexikoko Euskal Etxea eta UNAM-eko irakurletza.

Korrika Txikia egingo dute hirian zehar. Herri bazkaria eta bazkaloste musikatua ere antolatu dute Korrikaren omenez.

SANTA BARBARA (AEB) – MARTXOAK 18

Antolatzaileak: University of California Santa Barbarako irakurletza.

Korrika Txikia egingo dute campusean zehar.

Illinois (AEB) – MARTXOAK 20

Antolatzaileak: University of Illinois Urbana-Champaign unibertsitateko irakurletza.

Korrika Txikia egingo dute irakurletzako irakasle eta ikasleek.

SANTIAGO (TXILE) – MARTXOAK 23

Antolatzaileak: Pontificia Universidad Católica de Chile unibertsitatea, Universidad de Chile unibertsitatea eta Santiagoko euskal etxea.

Korrika Txikia eta herri bazkaria egingo dute irakurletzetako euskara ikasleek eta euskal etxeko kideek.

ASIA ETA OZEANIA

TOKIO (JAPONIA) – MARTXOAK 16

Antolatzaileak: TUFSeko (Tokyo University of Foreign Studies) irakurletza eta Tokioko Euskal Etxea.

Yoyogi parkean (Shibuya, Tokio) Korrika Txikia eta askaria egingo dute.

SIDNEY (AUSTRALIA) – MARTXOAK 24

Antolatzaileak: Gure Txoko Sydney.

Korrika Txikia eta herri bazkaria egingo dute Sydney-n euskara ikasten ari diren ikasleek, euskal etxeko bazkideek eta parte hartzera animatu nahi den orok ere.

Info+

Mikel Lasa
Etxepare Euskal Institutua
Tabakalera / Andre zigarrogileen plaza, 1
Donostia / San Sebastián
T: 943 023 400 / M: 688 670 217
komunikazioa@etxepare.eus

www.etxepare.eus